



## KOLON ETA ONDESTEKO EBAKUNTZA AURREKO PRESTAKETA PLEINVUE® HARTUZ TEM/TAMIS EBAKUNTZA OSPITALERATZEN ZAITUZTEN EGUNEAN BERTAN

### 1.-KOLONEKO PRESTAKUNTZA MEKANIKOA

Ebakuntza kirurgikoaren aurreko eguneko 16:00etan HASI BEHARKO DUZU PRESTAKETA HARTZEN.

Une horretatik aurrera EZIN izango duzu elikagai solidorik hartu ospitaleratu arte.

**16:00etan:** Une horretatik aurrera, dieta likidoa baino ez duzu hartuko. PLEINVUE®-ren 1. DOSIA: Diluitu lehenengo zorroa (1. DOSIA) 500 ML UR HOTZETAN; edan disoluzio hori 45-50 minutuko tartean. Ondoren, edan 500 ml ur edo LIKIDO ARGIAK (INFUSIO AZUKREDUNAK ETA KOLOREZTATU GABEKO EDARI ISOTONIKOAK).

EZIN DUZU ALKOHOLDUN EDARIRIK HARTU, EZTA ZUKURIK EDO ESNERIK DUEN EDARIRIK ERE.

**20:00etan:** PLEINVUE®-ren 2. DOSIA: (2. dosiaren A zorroa + 2. dosiaren B zorroa). Diluitu bi zorroak 500 ML UR HOTZETAN; edan disoluzio hori 45-50 minutuko tartean. Ondoren, edan 500 ml ur edo LIKIDO ARGIAK (INFUSIO AZUKREDUNAK ETA KOLOREZTATU GABEKO EDARI ISOTONIKOAK).

EZIN DUZU ALKOHOLDUN EDARIRIK HARTU, EZTA ZUKURIK EDO ESNERIK DUEN EDARIRIK ERE.

**Ospitaleratu baino 2 ordu lehenago:** ezinbestekoa da **ezer ez** hartzea (ezta urik ere).

### 2.- CLEXANE 40 MG HARTZEA, 20:00ETAN, EBAKUNTZA KIRURGIKOAREN AURREKO EGUNEAN (BEHARREZKOA BADA)